

RAINBOW TRESNA SORTA LUDIKO ETA PEDAGOGIKOA



Egileak:

*Federico Ferrari, Marco Mori, Luisa Bordiga, Riccardo Fallini,
Licia Togni, Biagio Pisapia, Stefania Cista.*



AURKEZPENA

Rainbow¹ proiektu bat da, Europar Batasuneko gay eta lesbianen elkarteak eskolekin eta hedabideetako profesionalekin harremanetan jartzen dituena, estereotipoak aztertzeke asmoz. Aldi berean, haur eta gazteen identitaterako eskubidea sustatzen du, batez ere generoari eta joera sexualari dagokienez, eta homofobiaren kontra borrokatzen laguntzen die, hezkuntza-tresnak erabiliz.

Antolatzaileek ikerketa bat egin zuten Italiako, Espainiako, Herbehereetako eta Bulgariako hainbat irakasleren artean, honako helburu hauekin:

- Europar, lehen hezkuntzan agertzen diren genero-estereotipoekin eta homofobiarekin lotutako metodoen eta teorioren ikuspegi orokorra lortzea;
- herrialde parte-hartzaileetako ikastetxeetan gaur egun garatzen ari diren esperientzien eta proiektuen azterketa konparatiboa egitea, identitate sexualerako eskubidea sustatzeari eta homofobiaren eta jazarpen homofobikoaren kontra borrokatzeari dagokienez.

Proiektu honetan zortzi herrialdeetan lanean aritu diren irakasle, boluntario, psikologo, aditu eta hezitzaileen lan bikainari esker, hiru produktu baliagarri lortu ditugu gure helburuak betetzeko:

1. 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak dituzten irakasleentzako tresna pedagogikoen sorta bat. Ikus-entzunezko zati bat du (bederatzi film labur) eta irakasleentzako gida bat. Zati honetan hainbat jarduera biltzen dira, ikasleei filmaren esanahia ulertzen laguntzeko eta irakasleei portaera homofoborik gabeko inguru askea lortzen laguntzeko.
2. Europa osoko nerabeek egindako film laburren lehiaketa bat.
3. Jolaserako tresnen sorta bat, agiri honetan aurkeztzen duguna. Tresna-sorta hori identitate sexuala errespetatu dadin errazteko eta hezkuntzako testuinguru ez formaletan homofobiaren kontra borrokatzeko erabil daiteke. LGBT pertsonen (Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualak) kirol edo jolas elkarteetako 16 urtetik gorako kideentzat da.

Hiru produktu horiek erabiltzaileei zenbait historia ematen dizkiete eta beste pertsona batzuen historiak entzuten eta beraienak kontatzen laguntzen diete. Horrela, iritzi okerreari kasurik ez egiten ikas dezakete. Gure ustez, antzezpenean eta lankidetzan oinarritutako jarduerak proposatuz eta partekatuz, lor daiteke ezberdintasuna errespetatzeko, elkartasuna sustatzeko eta intolerantziaren aurka borrokatzeko, hau da, begirunezko portaera erakusteko gaitasuna.

Proiektu honek ikasleei aukera ematen die beraien ikaskideekin film bat ikusteko, lagun batekin jarduera bat partekatzeko, gai zehatz bati buruzko film labur bat egiteko edo ikaskideekin rol-joko

¹ Ingeleseko hitza, "ortzadarra" esan nahi du. Era berean, bat dator ingelesezko esaldi honen laburdurarekin: "Intolerantziaren kontrako eskubideak, aurreiritzirik gabeko mundu bat sortzen".

batean parte hartzeko. Jarduera horiek guztiak lagungarriak izan daitezke aurreiritzirik gabeko bizi bizitzea zein erraza eta komenigarria den ulertzeko.

Ez daukagu, ez horixe, LGBT pertsonen bizi dituzten arazo guztientzako konponbiderik. Hemen bildu ditugun eta kontatzea erabaki dugun historia guztiek ere ez dituzte arazo horiek konpontzen. Baina, hori bai, gure munduari beste modu batean begiratzeko adibide eta proposamen gisa balio dute. Hortxe aurki daitezke konponbideak. Espero dugu proiektu honetan parte hartzea erabaki dezazun eta proposatzen ditugun tresnak zure ikasleekin erabil ditzazun.

DVDa

Tresnen sorta hori osatzeko, DVD bat ematen da. Bertan bildu dira “Homofobiaren kontrako film laburrak” izeneko lehiaketan aukeratutako filmak. Lehiaketa hori Rainbow proiektuaren barruan egin zen.

Lehiaketa 15 eta 30 urte bitarteko gazteentzat pentsatuta zegoen eta bi helburu zituen: batetik, nerabeen eta gazteen interesa piztu nahi zuen, estereotipoei buruzko ikerketan agertzen diren gai gatazkatsuen gainean; eta, bestetik, hezkuntzako tresnen sorta bat eratu nahi zen (eskuragarri dago linean, baita proiektuko kideetako edozeini eskatuta ere).

Filmak hainbat sailetan banatuta zeuden: zuzeneko ekintza, animazioa eta dokumentala. Identitate sexualari eta genero aniztasunari buruzko gaiok jorratu zituzten:

- Bizitza: zer den gay, lesbiana, transgenero o bisexuala izatea eskolan, familian, kirolean, eta abarretan.

- Harremanak: nire lagunak eta ni.

Parte-hartzaileek nahiago izan zituzten dokumentalak. Sarritan kirola aukeratu zuten homofobiaren kontra borrokatzeko ekintzak garatzeko hondo-irudi gisa.

Filma ikusteak tresna sorta honetan bildu gabeko hamaikagarren jarduera bat ahalbidetu lezake, adibidez, tresna sorta honetan sortu eta landu diren gaien gaineko dokumental bat edo film bat egitea.

Honax DVDra aukeratu diren filmak, Zinema Gay eta Lesbikoaren azken MIX Zinemaldian ikusitakoak:

- *LOVE**, Mikel Cenecorta Godoy, Espainia.
- *SPORT IS GAY**, Gyro Liverpool, LGBT Youth North West Network, Erresuma Batua.
- *TI SPOSERO**, Gruppo Giovani Arcigay, Brescia, Italia.
- *STICK AND STONES*, First Light Video, Erresuma Batua.
- *UK LGBT CREATIVE DAY & CONCERT*, Stoke Newington School, Erresuma Batua.
- *I AM MYSELF*, Artan Karoli, Albania.
- *WE CAN CHANGE THAT*, LGYM Manchester, Erresuma Batua.

*(Lehiaketaren irabazleak).

JARDUEREN GIDA

Tresna sorta honetan proposaturiko jarduerak nerabeentzako eta gazteentzako dira. Homofobia, genero identitatea, joera sexuala, sexualitatea eta bereizkeria bezalako gaiak jorratzen dituzte.

Rainbow proiektuko beste produktu batzuen antzera, talde-jarduerak eskaintzen dituen tresna sorta egitea erabaki genuen. Izan ere, gure iritziz, gai horiek jolastuz, bizitza errealeko egoeren simulakroa eginez, gizartean aurrez pentsatuta dauden ideiak gogora ekarriz, elkartuz eta kideen artean iritziak kontrastatuz aztertzen badira, talde barruan dauden aurreiritzi asko identifika ditzakegu eta, horrez gain, aurreiritzi horiek deuseztatzeko lan egin.

Kontua ez da bereizkeriaren alderdi kulturalerik gogoeta teorikoa egitea, baizik eta aipatzea zer gertatzen den talde bateko kideek elkarri eragiten diotenean eta beraien esperientziak elkarri adierazten dizkionenean.

Tresna pedagogikoen sorta hau **LGBT elkarteetako** kide **gazteen taldeentzat** bideratuta dago. Egungo errealitatea hausnartzeko eta aztertzeko prozesuan eta taldea eraikitzean jarduera horiek lagungarri izan ditzaten lortu nahi da. Bestalde, **LGBT elkarteetakoak ez izan arren**, oraingo gai bat –zenbaitetan, polemikoa jorratzeko beharra sentitzen duten nerabeen eta gazteen taldeentzat ere bada. Horrelako gaiak sarritan modu abstraktuan jorratzen dira, baina horien eragin praktikoa funtsezkoak dira taldeko kideen artean ongizatea eta kohesioa guztiz garatzeko. Era berean, tresna interesgarria izan daiteke **kultur etxeetan edo auzokideen zentroetan edo eskola-talde esperimentaletan, talde informalei** kontzientzia harrarazteko.

Tresna sorta hau hainbat pertsonak erabil dezaten diseinatuta dago: irakasleek, hezitzaileek eta eragileek, programatuta dituzten jardueren (edo azterketa sakonen) esparruan; baita ere parte-hartzaile guztien berdintasunean oinarritutako dinamika zaildu dezaketela iritzita, horrelako irudirik ez duten taldeek.

Proiektuan guztira 10 jarduera bildu dira. **Zortzi** simulakroak edo **talde-jokoak** dira. Beste **bat**, berriz, lineako **bideo-jokoa** da eta lehendik zegoen gizarte-sare batean aurki daiteke, baita proiektu honen web gunean ere. Aurrez aurre bateratze-lana egiteko modulu bat dauka. **Azken jarduera** banaka edo taldeka egin daiteke, eta ez da gauzatu behar, nahitaez, bideo-jokoa egiten den toki berean: lineako jokoa agertzen diren irudi batzuk abiapuntu hartuta, irudi horiek proiektuko gainontzeko jarduerekin izan ditzaketen loturak adierazten ditu.

9 gako-hitzen bitartez, lehen begiratuan ikus daiteke proposatutako jarduera bakoitzean zer gaietan komerki den arreta jartzea edo gogoeta egitea. Jarduera bakoitzean hainbat gako-hitz aipatzen dira.

Ariketak errazago ulertu eta gauza daitezten, fitxa guztien kongruentzia eta bat-etortze egokiari eusten ahaleginduz egin dugu fitxa bakoitza. Fitxek honelako egitura dute:

- IZENBURUA
- GAKO-HITZAK
- TESTUINGURUA
- HELBURUAK
- GAUZATZEKO MODUA
- BATERATZE-LANA
- INFORMAZIO GEHIAGO, LOTURAK

Baliagarria iruditzea eta ondo pasatzea espero dugu!

JARDUERETAKO GAKO-HITZAK

Proiektu honen ildo orokorra honako printzipio honetan oinarritzen da: beti errespetatu behar dira kultura, genero eta joera sexualarekin lotutako ezberdintasunak, eta, aldi berean, ezberdintasun horiek estereotipoen eta bereizkeriaren baldintzapenetatik aske geratu behar dute, norberak askatasun handiagoa izan dezan bere burua emozionalki eta banaka garatzeko orduan.

Beraz, **9 gako-hitz** proposatzen ditugu, hau da, 9 urrats, askotan egintzat jotzen ditugun kontzeptuak hausnartu eta analitikoki desegiteko bide luzean. 9 kontzeptu horiek elkarri estu lotuta daude eta ikuspegi ezberdinak eman ditzakete tresna sorta honetan proposatu diren jardueraz.

1. EZBERDINTASUNAK eraikitzea:

Ezberdintasun ugari dago gu guztion artean. Hala ere, gutxi batzuk baino ez dute kultura garrantzirik. Horrela, begien kolorea ez da garrantzitsua; bai, ordea, generoa, larruazalaren kolorea eta joera sexuala.

Norbanakoen bereizgarri ezberdinez dauden kultura-nozioek eragina dute pertsonengan eta, sarritan, gure gizarteko arauak betetzera bultzatzen dituzte. Gizartean, ezaugarri garrantzitsuenetako bat, beharbada, gizon edo emakume izatea izango da (generoa); ezaugarri horrek gure heziketa eta gure harremanak baldintzatzen ditu txiki-txikitatik. Sexu bakoitzak bete beharreko eginkizunaz (**genero-rolak**) gizartean dauden arauak areagotu egiten dituzte gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak, eta ezberdintasun horiek ez dira "unibertsalak". "Normalak" izateko patroia horri atxiki behar gaitzaizkiola dioen nozioa oztopo bat da edozergatik patroia horiekin identifikatzen ez diren pertsonen beren burua guztiz gara dezaten.

Gizona edo emakumea izateko patroia "normal" horrekin lotutako gizarte-espektatiben artean, heterosexualitatea izango da agian nabarmenena, hau da, kontrako sexuarekiko erakarpen erotikoa eta afektiboa. Hazten ari garenean, ideia hau izaten dugu buruan: "maskulinoa" emakumeenganako erakarpena sentitzea dela eta "feminitatea" gizonentzat desiragarria izatean datzala. Joera heterosexuala naturalizat, begi-bistakotzat jotzen da eta, beraz, homosexualitatea baino nahiago izaten da. Izan ere, homosexualitatea maskulinitatearen "akats" gisa sumatzen da gizonengan, eta feminitatearen "akats" gisa emakumeengan. Aldez aurretik pentsatutako ideia horiek "**heterosexismo**" eta "**homoezezkotasun**" bezala definitzen dira, hurrenez hurren.

2. AURREIRITZIAK (eta estereotipoak):

Pertsona bakoitzak, berak nahi ala ez, bere errealitatea sinplifikatu behar izaten du bizi ahal izateko. Munduaren eta inguratzen gaituzten izakien konplexutasun ikaragarriari aurre egiten diogunean, ez dugu astirik izaten gure ezberdintasunetako bakoitza aztertzeke eta, horregatik, gauzen izaeraz (zuhaitza, txakurra, eskola, gizona, emakumea, emakume abokatu, homosexuala, transexuala, e.a.) aldez aurretik pentsatuta dauden ideien mende egoten gara.

Hau da, gauza guztien **irudikapen sinplifikatua** izaten dugu. Horrek lagundu egiten digu bereizgarriak ezagutzen eta datorkigunari aurrea hartzen zerbaitekin edo norbaitekin harremanetan jartzen garenean. Irudikapen horiei "estereotipoak" deritze eta besteengandik edo hedabideen bitartez iristen zaizkigu, "aurrez prestatutako" kontzeptu moduan. Beste batzuetan, geure iritzi propioa osatzen dugu, geurea izanagatik ere mugatua den bizipen bat oinarritzat hartuta.

Aurreiritzi bat honela azal daiteke: pertsona edo egoera batez dugun **iritzia**, pertsona edo gertakari hori kokatzen dugun kategoriari dagokion **estereotipoa abiapuntu hartuta**. Berdin dio iritzi ona ala txarra izatea. **Aldez aurretik** eraikitako zerbait da eta ez dator errealitatearekin bat.

Aurreiritziek lasaitasuna ematen dute, arindu egiten baitute egitate hau onartzeak sortzen duen nahastea: pertsona oro ezberdina da eta zerotik hasi behar dugu norbait ezagutzen dugun bakoitzean. Aurreiritziek pentsamenduaren sistema artikulatuekin ere badute lotura, eta aurretiaz pentsatutako ideologiak eta nozioak justifikatzeko balio dute.

Horregatik, askorentzat zaila izan daiteke nozio horiek zalantzan jartzea, nahiz eta norberaren bizipen batzuek kontrako zentzua erakuts dezaketen. Bizipen horiek beraien iritziak berriz hausnartzera bultzatzen dute pertsonak, baina hori ez da batere erraza.

Arrazakeria, generoagatiko bereizkeria eta homoezekotasuna gainditu nahi baditugu, funtsezkoa da dauzkagun estereotipo propioak onartzea eta aurrez pentsatutako ideiak gezurtatzea.

3. **EMOZIOEKIKO lotura:**

Emozioei dagokienez, gizona edo emakumea izatearekin lotutako estereotipoek eragina izaten dute jaiotzetik jasotzen dugun heziketan ere. Emakume jaiotzeak berekin ekartzen du honelako ezaugarriak azpimarratzen dituen heziketa ematea: norberaren sentimenduekiko lotura eta, bereziki, **entzutea, bereiztea, beldurra adierazi eta jasatea, tristezia**. Aitzitik, gizona ideia hauekin hezten dute: "gogorra" izan behar duela, "ez duela negarrik egin behar" eta sentimendu batzuk gainditu behar dituela, sentimendu horiek dituela ohartzen ez bada ere, berehala zerbaiti ekiteko. Horren ondorioz, pixkanaka urrundu egiten da bere alde "sentikorretik", "ahul" eta desegokitzat jotzen baita agintean eta buruzagitzan aritzeko, bada horren ikuspegia, gehienbat, ekintzara bultzatzekoa da.

Maitasun sentimenduei dagokienez, gizona sarriago egoten da gizarte-arauen mende emakumea baino. Gizarte-arau horiek "beste gizon batzuekin **adiskidetasuna**" aurreikusten dute, eta "emakumeekin **maitasuna/erotismoa**". Homosexualitatearen nozioak kolokan jartzen du automatismo hori eta arazoak sortzen dizkie aniztasunaren gaineko heziketa egokia jaso ez dutenei. Sarri askotan, homosexualenganako mespretxuzko jarrerak pertsona jakin batzuen erreakzioa izaten dira. Pertsona horiek ez dira gai beren buruari galdetzeko eta ez dakite nola kudeatu automatismo heterosexuala zalantzan jartzeak sortzen dizkien emozioak.

4. **Autoestimua:**

Heziketa desberdinak esan nahi du gizonak eta emakumeek printzipio ezberdinak erabiltzen dituztela pertsona gisa duten balioa neurtzeko. Horren ondorioz, oso modu desberdinean eraikitzen dute beraien autoestimua. Pertsonen adre ematen zaie beren burua gizartean definituta dauden genero-rol batzuekiko duten atxikimenduaren arabera ikus dezaten. Adibidez, mutilei autonomia handiagoa baimentzen zaie hazten direnean, eta gurasoek esperimenduzko portaera onartzen diete, mutilek beren buruan duten konfiantza susta dezaten, baita beren **lehiakortasun sentsazioa** ere, hainbestearino ezen autoestimua parametro horiei lotzen baitzaio azkenean, eta mutil batentzat zaila izan daiteke laguntza eskatzea, pertsona gisa ez dela hain baliotsua sentiarazten diolako.

Aldiz, neskentzat "zintzoak", "goxoak" eta "samurrak" izateko espektatibak egoten dira; horrek ideia hau sorrarazten du: nesken balioa beren **maitagarritasunari** lotuta dagoela, edo besteen babesa eta laguntza merezi izateko ahalmenari. Haatik, mendebaleko mundu

modernoak pertsona ororen lehiakortasunaren, eraginkortasunaren eta ekintzaren balioa nabarmentzen du, generoa alde batera utzita. Horrela, neskak ere beraien ezagupenak erabiltzea garrantzitsua dela sinistuta hazten dira, baita besteak beraiekin ados egon ez litezkeen egoeretan ere. Beraz, emakume bat maitagarritasunaren eta eraginkortasunaren arteko gatazkan egon daiteke eta horrek behar bezain ona ez izatearen sentsazioa sor diezaioke, baita nahi dituen lan-helburuak lortzeko arazoak ere.

Gutxiengo sexual batekoa izanik printzipio tradizional horien arabera hezi duten pertsona batek bere autoestimua hondatuta senti dezake, besteak baino gutxiago dela pentsa dezake, edo baliorik ez duela sentitu, bere joera sexualagatik edo genero-identitateagatik. "Barneratutako homofobia" esapidea erabiltzen dugu horrelako sentsazioak edo usteak aipatzeko.

5. Gorputza (eta osasuna):

Generoaren eraikuntza sozialak bere baitan hartzen ditu, halaber, gorputzari berari dagozkion izaera fisikoak eta erlaziozko ereduak ere. Emakumearen eginkizunari beti lotu izan zaio gorputzaren ideia, begiratzeko eta desiratzeko objektu gisa, edertasunaren balioa azpimarratuz. Aldiz, eginkizun maskulinoak nozio hau azpimarratu du: gorputzak errendimendu, indar eta erresistentzia ideia helarazi behar duela. Hala ere, egungo kulturak itxuraren balioei gero eta garrantzi handiagoa ematen dienez gero, prestazio fisikoekin lotutako ideia horiek aldatzeko joera dago edertasunaren eredu estetiko horietan. Gainera, pertsonaren fisikoarekin zerikusia duten genero-arauek jarrera-motak, kirol jarduera motak eta kideekiko harreman motak agintzen dituzte.

Horrek guztiak gutxiegitasun sentsazio bizia sor dezake, batik bat gorputz aldaketak eta identitate-aldaketak bizi dituzten nerabeengan, bada prozesu horretan kideen onarpenak eta miresmenak eragin handia izaten du beraien autoestimuan, eta, alderantziz, mespretxuak eta destainak mingarriak izaten dira eta trauma sor dezakete.

Beren generoa gutxiengoaren ikuspegitik bizi duten neska-mutilek oso biziki senti dezakete gutxiegitasunaren sentsazio hori, beren gorputzei dagokienez. Oro har, horrek kirol jarduerak uztera bultzatzen ditzakete edo, areago, norberaren garbitasunari eta osasunari jaramonik ez egitera eta kideekin espazio fisiko eta jarduera gutxiago partekatuz. Barneratutako homofobia larria gertatzen denean, nor bere burua zaintzeari jaramonik ez egiteak gutxiegitasun sentipena eta hildura sentsazio ikaragarria estal ditzakete.

6. Aukerak eta PROIEKTU EMOZIONALAK:

Zoriona lortu nahi bada, pertsonaren erabateko **garapen** moduan ulertuta, hainbat gauza dira beharrezkoak. Besteak beste, trebetasuna behar da **proiektu emozional bat** garatzeko, baita maitatzean nahiz maitatua izatean oinarritutako harreman esanguratsuak eta sentituak eraikitzeke ere.

Normalean prozesu zaila izaten da, gizarteak oso garrantzitsutzat jotzen du eta hori eraikitzeak adorea ematen du; horren ondorioz, etorkizunean itxaropena izateko sentsazioa sustatzen du pertsonengan.

Sarritan, ordea, ez da hala gertatzen heterosexualak ez diren pertsonekin, arrazoi hauengatik: alde batetik, homosexualitateari buruzko estereotipoen eraginez, homosexualitatea inbertsio emozional legitimorik eta iraunkorrik ez dakarren portaera sexual huts bezala sailkatzen delako; eta, bestetik, gizartean babesten den ideien arabera, sexu bereko bi pertsonen

arteko maitasunak ezkontzan eta familian lekurik ez duelako. Heterosexuak ez direnek, hortaz, bakardade sentazio bizia senti dezakete eta, emozioei dagokienez, oso nekez imajinatu ahal izango dute etorkizun atsegin-emailea eta zoriontsua.

Garrantzitsua da gizarte-bereizkeria hori onartzea eta horri aurre egiteko eta gainditzeko modurik onenak identifikatzea. Horretarako, adibide asko nabarmendu daitezke: sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak, guraso bezala jarduteko LGBT pertsonentzako dauden aukerak – horiek ohikoak dira munduko herrialderik demokratikoenetan eta aurrerakoienetan.

7. Ikusgarritasuna/ikusezintasuna:

Genero-identitate, joera sexual eta kultur afiliazio ezberdinak dituztenei duintasun bera ematen ez zaien testuinguru batean, zaila izan daiteke norberaren identitatea libreki adierazteko **adorea** izatea, arbuiatua, makurrarazia izateko eta, are gehiago, eraso jasotzeko beldurragatik. Alabaina, ikusezintasun egoeran egoteak bi ondorio kaltegarri izan ohi ditu: lehena, aurreiritziaren biktimei ezin zaie lagundu beren estereotipoak baztertzen; eta, bigarrena, ezkutuan bizi direnei ezin zaie beraien balioa aitortu eta berretsi, horrela beren eskubideak berreskuratu ahal izateko.

Gainera, gizarte-sistema bakoitzak ezberdintasunak daudela eta garrantzitsuak direla “ikusi” behar izaten du, horietaz jabetzeko eta horiek babesteko. Horrexegatik da ezinbestekoa gutxiengo batekoak direnak ilunpean ez egotea.

Prozesu horretan lagundu nahi bada, gizarte-langileek, irakasleek, kideek eta talde minoritario bateko gazteentzat **rol-eredu** izan daitezkeen guztiek argi eta garbi erakutsi behar dute gutxiengo horiek onartzeko eta babesteko prest daudela. Hori oso garrantzitsua da. Horrela, identitate guztiekiko **errespetuaren sustatzaile aktibo** bihurtuko dira.

8. Afiliazioa edo lotura (adibidez, etnizitate batekin, erlijio batekin, eta abarrekin):

Gutako bakoitzari, gure bereizgarriengatik, talde sozial, etniko, kultural, erlijioso edo politiko ezberdinekiko afiliazioak dagozkigu. Talde horiek eta guk sinesmen edo portaera patroi berak ditugu. Zenbaitetan, afiliazio horiek elkarren kontrakoak izaten dira, besteengan sortzen dituzten espektatibei eta norberarengan dituzten inplikazioei dagokienez. Esate baterako, transgenero pertsonen eta erlijio islamikoaren gizarte estereotipoak elkarrengandik oso urrun daude, baina horrek ez du eragozten herrialde arabiarretan sarri samar transexualismoa egotea. Erlijio batzuk, adibidez, genero-identitate eta joera sexual jakin batzuk adieraztearen kontra daude, baina pertsona gehienek horrelako kontraesanei aurre egin behar izaten diete, ez baitira aukeraketa baten ondorio. Bestalde, norberaren sentimenduak ulertzeko eta erregulatzeko sortu diren kategoria kulturalak aldatu egiten dira kultura batetik bestera. Orduan, bestearekin harremanetan jartzeak eta hark kontatzeko daukana aditzeko borondateak bakarrik lagundu dezakete benetan estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko.

9. Eskubideak

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak honela dio lehen artikuluan: *“Gizon-emakume guztiak libre jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberekin,...”*. Beraz, “eskubideak” gizon eta emakume bakoitzari aitortzen zaion askatasuna dira, eta norberak besteen parean adierazpenak egiteko eskubidea izango duela ziurtatzen dute. Eskubide horien artean sartzen da, dudarik gabe, nork bere burua emozionalki garatzeko eskubidea.

Horregatik, **Europar Batasunaren Lisboako Itunak** (onarpen juridikoa eman dio **Oinarrizko Eskubideen Gutunari**, 2000ko abenduaren 7an Nizan sinatutakoari) honako kontzeptu hauek

biltzen ditu (EBren funtzionamenduari buruzko bertsio bategina, 2010.03.30):

10. artikulua

Bere politikak eta ekintzak definitu eta gauzatzean, Batasunak ahaleginak egingo ditu sexu, arraza, jatorri etniko, erlijio edo sineste, ezgaitasun, adin edo joera sexualagatiko bereizkeria ororen kontra borrokatzeko.

19. artikulua (lehenago, EEIren 13. artikulua):

Itunetako gainontzeko xedapenak gorabehera, eta itun horiek Batasunari emandako eskumenen mugen barruan, Batzordeak ekintza egokiak onartu ahal izango ditu sexu, arraza- edo etnia-jatorri, erlijio edo sineste, ezgaitasun, adin edo joera sexualagatiko bereizkeriaren kontra borrokatzeko, aho batez eta legegintza-prozedura bati jarraiki eta aurretiaz Europako Parlamentuaren onespena jasota.

1. JARDUERA

EZKONTZA GUZTIENTZAT?

ITZULTZAILEEN OHARRA: Jarduera hori italierazko bertsioan bakarrik agertzen da, Italiako konstituzio Zuzenbideari dagokiolako.

2. JARDUERA

BIHOTZ-URRATZAILEA

GAKO-HITZAK: **ezberdintasunak**, aurreiritziak, afiliazioak.

ADINA ETA PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA: 18 urtetik aurrera; gutxienez, 15 parte-hartzaile.

IRAUPENA: 25-45 minutu.

JARDUERAREN HELBURUAK ETA JUSTIFIKAZIOA: Gizon eta emakume guztiek gauza bera nahi dutela uste dugu, baina ohartzen gara pertsona bakoitzak oso ezaugarri ezberdinak nahi eta bilatzen dituela besteengan.

TESTUINGURUA: Estereotipoek desio jakin batzuk gizarte-talde jakin batzuekin lotzeko joera izaten dute. Jarduera honen bidez nabarmendu nahi da norberaren nahiek ez dutela zerikusirik afiliazio taldeekin eta oso bestelakoak direla, izan ere, afiliazioak gizartean eraikitako teoriak dira azken batean.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Eska iezaezu parte-hartzaileei hiruko taldeetan elkar daitezela, beraien bikote idealaz hitz egiteko, hark zer ezaugarri izango lituzkeen banan-banan adieraziz. Lana errazteko, alderdi hauen gainean gogoeta egitea gomendatzen da: nortasuna, ezaugarri fisikoak, interesak/jarduerak, afiliazio taldeak (politikoak, erlijiosoak...).
2. Gero, azal iezaezu zein den helburua: gure gustuak besteenekin zenbateraino datozen bat aztertzea. Horretarako, lehen urratsa izango da bikote idealaren nortasun-fitxa sortzea.
3. Jarraian, bana iezazkiezu orriak eta arkatzak, eta azaldu parte-hartzaile bakoitzak zortzi muturreko izar bat marraztu behar duela. Gero, talde txiki horrek aipatu dituen ezaugarriak apuntatu behar dira. Ariketaren fase honetan ez du axola ezaugarri bakoitza (nortasuna, itxura fisikoa, afiliazioa, eta abar) izarrean irudikatuta egoteak, baina garrantzitsua da bakoitzak gehien axola zaizkion zortzi ezaugarriak aukera ditzan. Ariketaren zati honek 10 minutu inguru iraun behar du.
4. Ondoren, esaezu parte-hartzaileei beren izarra besteenekin konpara dezatela eta idatz dezatela izarraren mutur horretan ezaugarri berbera aukeratu duen edonoren izena. Adibidez, Juan eta Maria, biak, bikote kirolaria bilatzen ari badira, Juanek Mariaren izena idatziko du, eta Mariak, berriz, Juanena, nork bere izarraren "kirolari" muturrean. Bi pertsonak ezaugarri berberak sinonimoen bidez aipatzen badituzte (esaterako, "kirolaria" eta "atletikoa"), ezaugarri komuntzat jo daiteke. Fase honek 15 minutu inguru irauten du.
5. Orain elkar itzazu parte-hartzaile guztiak eztabaida-saio batean, baina oraingoan bana itzazu aipatu dituzten ezaugarrien arabera. Eska iezaezu beste pertsona batzuek aukeratutakoekin bat zetozen ezaugarri bat baino gehiago aipatu dituztenei hauta dezatela talde bat, hain zuzen, beraien gehien axola zaien ezaugarria nabarmendu duena. Norbaitek beste inoren antzeko ezaugarriak aukeratu ez badu, eska iezaezu aukera dezala gutxien gustatu zaion ezaugarriaren taldea.

6. Orain eskatu talde bakoitzari hitz egin dezala aukeratu duten ezaugarri horretaz eta aukera horien zergatien artean dauden ezberdintasunez. Eskatu, halaber, hitz egin dezatela aintzat hartzea erabaki duten beste ezaugarri batzuez, eta adieraz dezatela ea gainontzekoek deskribatu duten profila beren gustuekin bat datorren ala ez, edo beraiekin zerikusirik ez duten zerbait bezala ikusten duten.

BATERATZE-LANA

Ebalua ezazu elkarrizketak nola garatzen diren, eta galdetu parte-hartzaileei ea beraien ustez ariketa egin bitartean estereotipo edo aurreiritziren batzuk sortu diren gainerako parte-hartzaileek aipatu dituzten ezaugarriei buruz, eta ea elkarrizketetan ezaugarri horiek azkenean baliorik gabe utzi diren.

Materialak: orriak eta arkatzak

3. JARDUERA

BAINA ZUK NOLA IKUSTEN DUZU ZEURE BURUA?

GAKO-HITZAK: autoestimua, emozioekiko lotura, ikusgarritasuna/ikusezintasuna, ezberdintasunak.

ADINA ETA PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA: 18 urtetik aurrera, gutxienez 15 parte-hartzaile.

IRAUPENA: 40 minutu.

JARDUERAREN HELBURUAK ETA JUSTIFIKAZIOA: Genero-rolen eta joera sexualaren estereotipoei dagokienez, besteak gutaz duten pertzepzioaz hitz egitea, eta bereizkeriaren azpian dauden mekanismoak onar daitezen erraztea, horiek espazioan irudikatuz.

TESTUINGURUA: Besteak nola ikusten ditugun pentsatzeko orduan, oso ohikoa izaten da bereizkeriaren azpian dauden estereotipoak erabiltzea, hau da, mekanismo sinplifikatzaile bat erabiltzea. Besteak gu baloratzeko estereotipoak erabiltzen dituztenean, askoz errazagoa izaten da errealitatearekin zerikusi gutxi dutela konturatzea.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Elkartu taldea parte-hartzaile guztiak kabitzen diren toki batean.
2. Eskatu parte-hartzaileei lau kartel jar ditzatela gelako lau paretetan. %100 eta %0 adierazten duten kartelak elkarren kontrako paretetan jarri behar dituzte. Elkarren kontrako beste bi paretetan, berriz, "balio positiboa" eta "balio negatiboa" dioten kartelak jarri behar dituzte.
3. Orain zatitu taldea bi azpialde berdinetan.
4. Eskatu azpialde bati paretaraino joan dadila.
5. Eskatu beste azpialdeari gelaren erdian eser dadila.
6. Orain azal iezaiezu animatzaileak generoarekin zerikusia duten hainbat ezaugarri aipatuko dituela. Gelaren erdiko taldeko kideek %100 kartela dagoen paretara hurbildu behako dute entzundako ezaugarria beraiek proiektatzen dutela iruditzen bazaie, eta %0 kartela dagoen paretara hurbildu behar dute ezaugarri horrekin zerikusirik ez dutela sentitzen badute.

“Balio positiboa” dioen kartelera edo “balio negatiboa” dioenera hurbildu beharko dute, kasuan kasuko ezaugarriaz duten iritziaren arabera.

7. Bakoitzaren kokagunea kontuan hartuta, ikusleek esan beharko dute, beraien pertzepzio propioetik abiatuta, nola interpretatzen duten kokagunea aukeratu duen taldeak adierazitako ezaugarria.
8. Ikusle batek ikusten badu gelaren erdiko taldeko kide batek aukeratu duen ezaugarria ez datorrela bat berak, ezaugarri horri dagokionez, kide hartaz duen pertzepzioarekin, jolasa eten daiteke, ezaugarri horrek parte-hartzaileentzat duen esanahiari buruzko eztabaida sustatzeko eta esanahi ezberdinen zergatiak aztertzeko.
9. Lehen fasearen amaieran, bi taldeak eginkizunak truka ditzakete.

Honako ezaugarriok erabili behar dira:

- | | | | |
|--------------|-----------------|----------------|----------------|
| 1. Atsegina | 4. Ausarta | 7. Lasaia | 10. Maskulinoa |
| 2. Indartsua | 5. Erakargarria | 8. Eraginkorra | 11. Femeninoa |
| 3. Sentibera | 6. Sentsuala | 9. Asertiboa | |

BATERATZE-LANA

Baldin eta kokagune baten eta hurrengoaren arteko etenaldian mutilen eta nesken arteko banaketa ezberdina gertatzen bada tipikoki maskulinoak edo femeninoak diren ezaugarriei buruz, nabarmendu ezazu banaketa hori.

Kokaguneak aukeratzen dituztenean, eskatu parte-hartzaileei esan dezatela zer egoeratan uste duten beraiek ezaugarri hori adierazten dutela ("Indartsu sentitzen naiz honako edo halako egoeran...").

Taldeko parte-hartzaileek elkar ondo ezagutzen badute, ikusleei eska diezaiekezu berriz koka ditzatela gelako kokaera ez den beste batean ikusten dituzten parte-hartzaileak.

Materialak:

4 orrialde eta boligrafo bat.

4. JARDUERA

NOR GERATZEN DA ATZEAN?

GAKO-HITZAK: eskubideak, ezberdintasunak eratzea, aurreiritziak.

HELBURUAK: Gizarte-testuinguru desberdinetan hainbat motatako ezberdintasunak daudela antzematea.

Ezberdintasun horiek norberarengan eta bere harremanetan dituen ondorioak arretaz aztertzea.

TESTUINGURUA: Testuinguruagatik eta gizarte-mailagatik “hotz” antzematen ditugun pertsonekin enpatizatze ahalmena garatu nahi dugu neska-mutilengan.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Azal iezaiezu taldekideei nortasun jakin bat duen pertsonaren larruan jartzeko eskatuko zaiola bakoitzari, bakoitzari banatuko diozun fitxan agertzen den deskribapen laburrari jarraiki.
2. Utzi minutu batzuk neska-mutilei, eman zaien eginkizuna azter dezaten eta zer-nolako eguneroko bizimodua, asmoak, harremanak eta aukerak izan litzaketen imajinatzen saia daitezten.
3. Ondoren, ideia batzuk eman ez lagun diezaiekezu: non bizi diren, non hazi diren, nolakoa den beraien familia eta etorkizunari begira zer asmo eta beldur izan ditzaketen.
4. Jar itzazu parte-hartzaileak ilaran.
5. Irakurri zenbait galdera, bata bestearen ondotik, eta eskatu parte-hartzaileei pauso bat aurrera eman dezatela beraien erantzuna baiezkoa baldin bada, eta dauden tokian gera daitezela bestela. Jolasak aurrera egin ahala, batzuek oso bizkor emango dituzte pausoak aurrera, baina beste batzuk ia hasierako tokian geratuko dira. Emaiezu beharrezko denbora beraien egoera hausnar dezaten erantzun ahal izateko, eta besteak hartzen ari diren tokia ikus dezaten.
6. Behin galderak bukatuta, parte-hartzaile bakoitzak esango du zer eginkizun betetzen ari zen jolasean, gainontzekoek gelan duten tokiaren arabera ebaluatu ahal izan dezaten.

BATERATZE-LANA

Jarduera honen ostean, bereziki baliagarria da bateratze-lana. Esate baterako, galdera gutxi batzuen bidez, jolasak parte-hartzaileen artean zer gai sortarazi dituen azter dezakezu. Galdera hauek balio lezakete:

- Zaila izan da beste pertsona baten tokian eta larruan jartzea?
- Nola eratu duzue eman dizueten nortasunaren irudia? Ikusi eginkizuna burutzeko iturriak eta inspirazioa.
- Nola sentitu zarete galderak entzutean aurrera egitea tokatu ez zaizuenean?
- Noiz konturatu zarete denek ez zutela martxa berean aurrera egiten?
- Izan al duzue zuen eskubideak saihestu direlako sentsaziorik?
- Zer egoeratan da giza eskubideen urraketa bat aukera jakin batzuk izateko ezintasuna?
- Zergatik daude gizartean hainbat desberdintasun mota?
- Zer egin dezakegu desberdintasunak modu nabarian gutxitzeko?

Hausnarketa eta azterketa fasea bukatu eta gero, hainbat gai iker daitezke, web guneko edukia ikusita.

MATERIALAK:

Ezaugarriak adierazten dituzten 20 fitxa

Galderak dituzten 22 fitxa

NORTASUN FITXAK (fotokopiatu eta moztu)

1. Lanik ez duen ama ezkongabea	2. Bere bikotearekin bizi den ama lesbiana
3. Unibertsitateko ikaslea, oso industrialari aberats baten semea	4. 27 urteko gizona, etxegabea

5. Adin txikiko neska ijitoa	6. Gizon ezkondua, seme-alaben aita, lan egonkorra duena
7. Paperik gabeko gizon etorkina, beltza	8. Gizon transexuala (FTM), herrialdekoa bertakoa, langabea
9. Etorkin txinatarren semea, jatetxe baten zuzendaria	10. Emakume ezkongabea, lesbiana, langabea
11. Afganistango gizon errefuxiatu elbarria	12. Herrialdeko beste toki bateko unibertsitate ikaslea, nekazarien semea
13. Emakume albaniarra, prostituta	14. Emakume transexuala (MTF), Europar Batasunetik kanpoko bikote etorkina duena
15. Jatorri afrikarra duen neska ikaslea	16. Paperik gabeko etorkin txinatarren semea
17. Erlijioa praktikatzen duen familia bateko neskato musulmana	18. Gizon homosexuala, duela 10 urte bere bikotearekin bizi dena
19. Nerabea, medikuntza tratamendu garestia behar duen gaixotasuna duena	20. 15 urteko mutila, dibortziatuta dauden gurasoen semea

Galderak:

1. Telefonoa eta telebista dituen etxerik ba al duzu?	2. Eskolan zure ikaskideen artean integratzeko arazorik ba al zenuen?
3. Ez al zara beldur poliziak geldiaraziko ote zaituen?	4. Atsegin duzun lana daukazu?
5. Zure lantokian diskriminatuta sentitzen zara?	6. Ba al duzu ikasteko eta aukeratu zenuen lanbidean aritzeko aukerarik?
7. Eroso sentitzen zara zure etxera lagunak gonbidatzen dituzunean?	8. Ez al zara beldur kalean xaxatuko ote zaituzten edo hedabideek jazarriko ote zaituzten?
9. Kezkatzen al zaitu zure seme-alaben etorkizunak?	10. Maite duzun pertsonarekin maitemindu zaitezke?
11. Ezkondu eta seme-alabak izan ditzakezu?	12. Bizi zaren tokian onartzen eta errespetatzen al dira zure erlijioa, zure hizkuntza eta zure kultura?
13. Badakizu norengana jo estualdi batean	14. Ba al duzu osasun-arreta jasotzeko

bazaude?	aukerarik?
15. Baduzu bozkatzeko eskubiderik?	16. Zure erlijioa libreki praktikatu dezakezu?
17. Oporretara joan zaitezke?	18. Zaren bezalakoa izateagatik diskriminazioa pairatzeko beldur zara?
19. Baduzu zure familiarekin bizitzeko aukerarik?	20. Etorkizuna baikortasunez ikusten duzu?
21. Zure iritzia kontuan hartzen dela uste duzu?	22. Zure bikoteari bisita egin diezaiokezu ospitalean edo espetxean baldin badago?

5. JARDUERA ESZENATOKIRA!

GAKO-HITZAK: autoestimua, emozioekiko lotura, aurreiritzia, ikusgarritasuna, talde batekoa izatea.

HELBURUAK: *Bullying* edo jazarpenaren gaia eta patroiak berriz aztertzea, ikasleek egindako antzezpena abiapuntutzat hartuta.

Bullying-a sortzen duten mekanismoak ikertzea, baita *bullying*-a talde batean nola agertzen den ere. Esku hartzeko metodoak identifikatzea.

TESTUINGURUA: Jazarpen-dinamikei buruzko gogoeta eginez, neska-mutilei behar dituzten trebetasunak eskaini nahi zaizkie, bai egoera horiek prebenitzeko, bai eroso senti daitezen gaiok jorrazteko orduan nahiz irudi menderatzailea isolatu eta biktimei laguntzeko jokabidea hartzeko orduan.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Rol-jokoa 12-20 parte-hartzailerentzat.
2. Jardueraren gaia azaldu ostean (web gunean dauden materialak erabiliz, egoera kontuan hartuta komenigarria bada), bana itzazu parte-hartzaileak 4 edo 5 laguneko taldetan.
3. Talde bakoitzak *bullying* eszena bat antzeztu beharko du. "Antzezlan" eratzeko balioko duten egoera ezberdinak irakasleak emango ditu, fitxa batzuen bitartez.
4. Taldeak 15 minutu izango ditu gidoi batetik abiatuta bere eszena pentsatzeko, rola banatzeko eta rolen entseguak egiteko. Jakina, denbora gutxi dutenez gero, inprobisazioa oso garrantzitsua izango da.
5. Gero, talde bakoitzak bere eszena antzeztuko du gainontzeko parte-hartzaileen aurrean.

6. Antzezpenean gidoian ez zegoen elementu berri bat sar daiteke ezustean (adibidez, gertakariaren lekuko bat, ustekabeen erreakzionatzen duena). Horrek antzezleen bat-bateko erreakzioa eta haien erantzun emozionala suspertuko ditu.
7. Talde guztiek beraien eszena antzeztutakoan, has ezazu elkarrizketa bat, haien iruzkinak pizteko eta biltzeko.
8. Gaia zabaldu eta gogoetarako material gehiago emateko, web gunean dauden elkarrizketetako batzuk ikus ditzakezu parte-hartzaileekin batera.

BATERATZE-LANA

Jarduera bukatutakoan, baliozta ezazu zer-nolako erantzun emozionala izan duten eta, zehazki, nola erreakzionatu duten gidoiari erantsitako ezusteko elementuaren aurrean.

Azter ezazu parte-hartzaileekin batera gidoietan bildu dituzten elementuak, eta saia zaituz beraien iturriak identifikatzen: hau da, literatura, zinema, telebista, bizitako esperientziak, eta abar.

Eska iezaz baliozta dezatela zenbateraino iruditu zaizkien benetakoak antzezpenak.

Saia zaituz jakiten zer elementu dituzten denek batera, eta zeintzuk diren antzeztutako egoeren arteko desberdintasunak.

Lineako elkarrizketak ikusteak ematen duen laguntzaz baliatuta, ahalegindu zaituz guztion artean jazarpenaren zergatiak identifikatzen, baita horrelako egoerak konpontzeko tresnak ere:

- Egoera sorrarazten duten mekanismoak eta portaerak ezagutzea.
- Kasu bakoitzean, argi identifikatzea zer portaerak hobetzen zuen egoera, zein zen neutroa eta zer portaerak okertzen zuen egoera.
- Helduen eginkizunaz gogoeta egitea.

Sakonago azter daitezkeen gaiak:

- Jazarpenari buruzko materialak egitea. Jarduerean oinarrituta, ikasleek beraien jazarpen-egoera propioa asmatu eta beste ikasle batzuentzat antzez lezakete; edo gidoi grafiko bat edo komiki bat sor lezakete, paperean edo linean (kideen arteko hezkuntza).
- Eztabaida bat antolatzea kanpoko hizlariarekin, ikastetxe osoaren partaidetza eskatzen duten gaiei buruz.
- Ikasleek kudeatutako behatoki bat antolatzea, ikastetxe barruan dagoen jazarpenari buruz (kideen arteko bitartekotza).

6. JARDUERA

EPAIMAHAIKO JAUN-ANDREAK

GAKO-HITZAK: autoestimua, proiektu afektiboen bideragarritasuna, aurreiritziak, gorputza (eta osasuna), eskubideak, ikusgarritasuna/ikussezintasuna.

HELBURUAK: LGBT taldearen kontrako indarkeriaren eta bereizkeriaren ezagutza sustatzea.

Beste ikuspuntu batzuk aditu eta aintzat hartzea suspertuz, arazoaren ikuspegi zabalagoa bultzatzea.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Dinamizatzaileak parte hartzeko gonbita egiten du, 10 minutu inguruko ideia-erauntsi azkar baten bidez, LGBT taldearekin zerikusia duten eta gerta daitezkeen bereizkeria edo indarkeria moduak –ezkutatuak edo ez hain ezkutatuak identifikatzeko.
2. Ondoren, parte-hartzaileei eskatzen die pentsa dezatela beraien bizipenetan, maiz joaten diren lekuetan eta LGBT pertsonen aurkako bereizkeriak har ditzakeen ñabardura guztietan (esate baterako, laneko jazarpena edo *mobbing*-a, iseka mingarria, txantxa homofobikoak, jazarpena edo *bullying*-a, e.a.).
3. Dinamizatzaileak parte-hartzaileei eskatzen die gai bakoitza gako-hitz gutxi batzuetan laburtu dezatela eta gako-hitzak letra larri handiz idatz ditzatela DINA4 tamainako orrietan.
4. Ondoren, orri guztiak jaso eta bikoiztuta daudenak baztertzeko dira.
5. Hasteko, ausaz orri bat (arazo bat) aukeratzen da.
6. Zozketa bidez, bi parte-hartzaile hautatzen dira, gainontzeko parte-hartzaileen aurrean elkarren kontrako rolak egiteko.
7. Aukeratutako bi parte-hartzaile horiek kontrako jarrerak hartuko dituzte gaiak hitz egiteko: batek argudiatuko du orrian agertzen den arazoa aztertu eta konpondu egin behar dela; besteak, aldiz, berez ez dagoela arazorik aldeztuko du.
8. Bi rol horiek dinamizatzaileak eman dizkienez gero, bi “abokatuek” egokitu zaien ikuspuntua defendatu behar dute, harekin ados egon ala ez, eta beste aldea eta “publikoa” konbentzitzeko arrazoibideak aurkitzen ahalegindu behar dute.
9. Dinamizatzaileak bi “abokatuen” arteko elkarriketan lagunduko du eta biek beraien tesia modu egokian aurkezten dutela bermatuko du.
10. Eztabaida bakoitzean gutxienez 3 edo 4 ikuspuntu trukaketa egin behar dituzte bi abokatuek.
11. Dinamizatzaileak erabakiko du noiz eten eztabaida. Bi abokatuek arrazoibide nahikoak azaldu dituztela iruditzen zaionean egingo du hori.
12. Ondoren, aukeratutako beste orri batean proposatutako gaia eztabaidatzen hasiko dira eta beste bi parte-hartzaile hautatuko dira zozketa eginez.
13. Eztabaiden kopurua dagoen denborara doitu daiteke, baina azken ordu erdia bateratze-lana egiteko utzi behar da.

BATERATZE-LANA

Dinamizatzaileak egin diren eztabaidei buruzko iritziak trukatzera animatzen ditu parte-hartzaileak, bakoitzak bere ideiak azal ditzan. Interesgarria izango litzateke abokatu rola egin duten parte-hartzaileek galdera hauei edo antzekoei erantzutea:

Erraza edo zaila egin zaizu arrazoibideak bilatzea?

Ados zaude esan duzunarekin?

Kosta egin zaizu eman dizuten iritzia arrazoitzea?

Ados ez bazaude, nola sentitu zara zure iritziaz bestelakoa defendatzen?,

Zerk inspiratu zaitu zure iritzia defendatzen aritu zarenean?

Ezer berririk deskubritu duzu?

Defendatu duzun ikuspuntuarekin ados bazaude, zail gertatu zaizu beste aldearen arrazoibideari erantzutea?

Ondo pasatu duzu? Zergatik? Zergatik ez?

Eta gero beste hainbat galdera egin dakizkieke gainontzekoei. Adibidez:

Zer iruditu zaizkizue eztabaidak? Interesgarriak? Barregarriak? Aspergarriak? Behartuak edo naturaltasunik gabeak? Sinesgarriak?

Horietakoren batean parte hartu nahiko zenuketen?

Ados zaudete iritzietakoren batekin? Zeinekin?

Ezer deskubritu duzue? Aztertu diren gaiei buruz beste ikuspunturik baduzue?

Zuen ideietakoren bat aldatu duzue?

Zein izan da gehien konbentzitu zaituzten abokatua? Zergatik?

Solasaldi hori bukatzen denean, dinamizatzailleak saioa amaitu dezake, baina parte-hartzaileek nahi badute, aurrerago bilera sakonago bat egitea proposa diezaieke, parte-hartzaileek hasierako jarduera horretan sortu diren gaiei buruzko informazioa lortzeko denbora izan dezaten. Agian, eztabaidarako formatu berbera erabiltzea erabakiko dute, edo beste formatu formalago bat, beharbada gai hori jorratzen duen filmen bat ikusi ondoren.

INFORMAZIO GEHIAGO, LOTURAK.

Interneten eseki daitezke norberaren herrialdeari buruzko ikerketan lortutako datuak edo emaitzak.

MATERIALAK

Orriak eta boligrafoak edo arkatzak parte-hartzaile bakoitzarentzat.

7. JARDUERA

NEUK ERABAKITZEN DUT

GAKO-HITZAK: autoestimua, emozioekiko lotura.

HELBURUAK: Testuinguru egituratu batean, entzuteko toki bat aurkitzea.

Parte-hartzaileek beren historiak kontatzeko eta elkar ezagutzeko giroa ahalbidetzea.

Aztergaiari buruzko iritzia eta bizipenak aditu eta onar daitezzen lortzea.

Autoestimua eta eraginkortasuna sendotzea nor bere iritzia adierazteko orduan.

Parte-hartzaileen artean elkarrizketa konstruktiboa sustatzea.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Dinamizatzailleak orri honen ondoren agertzen den zerrendako esaldi batzuk kopiatuko ditu paperezko orrietan, eta kutxa batean jarriko ditu.
2. Parte-hartzaile bakoitzari kutxatik orri bat hartzeko eskatuko zaio.
3. Parte-hartzaile bakoitzak minutu bat izango du bere gaiak hitz egiteko; hasteko, bere bizipenak lehenetsiko ditu.
4. Lehenbiziko parte-hartzaileak esku hartu ondoren, bizpahiru minutu eskainiko zaizkio taldeko elkarrizketari.
5. Elkarrizketa hori bukatzean, bigarren parte-hartzaileak bere gaiak hitz egingo du minutu batez eta, jarraian, berriro talde osoaren solasaldia egingo da.
6. Horrela jarraituko da parte-hartzaile guztiek minutu batez hitz egin arte.
7. Dinamizatzailleak denborak kontrolatuko ditu eta malgua izango da solasaldi interesgarriak eta emankorrak sortzen direnean.

Oharra: dinamizatzaille-lanetan aditua behar du izan, elkarrizketa eta komunikazioa bultzatzeko. Dinamizatzailleak parte-hartzaileen arteko komunikazioa azpimarratu behar du, eta konparazio orokorrak eta parte-hartzaileen erosotasuna suspertu behar ditu (esaterako, saihestu egin behar ditu galdeketa-dinamikak, errespeturik eza, e.a.). Kontua ez da iritzi bateratu eta partekatu batera heltzea, baizik eta parte-hartzaileei hitz egiten laguntzea eta gainontzekoen esperientziak eta iritziak aditzea.

Horretarako, dinamizatzailleak oso adi egon behar du, bandoak edo alderdiak sor baitaitezke; era berean, denen parte-hartzea bultzatu behar du.

Besteen aurrean mintzatzeko eta adituak izateko ohiturarik ez duten pertsona batzuek lotsa senti dezakete, edo zailtasunak izan, hitz egiteko orduan. Beraz, garrantzitsua da irakasleak esku hartzera inor ez behartzea, baizik eta pertsonari minutu batez aditua izateko (eta, areago, bere burua aditzeko) aukera –agian, lehendabizikoa kudeatzen laguntzea. Dinamizatzailleak parte-hartzaileei beraien emozioak edo pentsamenduak aditzen lagun diezaieke hitz egiteko eman zaien minutu horretan; horrela, euren burua egoera berri batean ezagutzeko duten aukera aprobetxa dezakete.

BATERATZE-LANA

Bateratze-lanerako ideiak:

Hitz egin ezazue gai hauetaz: zuentzat zer gai izan diren zailenak eta denbora luzeagoa merezi zutenak, zeintzuk interesgarrienak, parte-hartzaileak nola sentitu diren hitz egiteko orduan, zer alderdi gustatu zaizkien eta zer ez. Zer motatako hizkera erabili da? Gai zailei buruz hitz egiten aritzeak, kontu handiagoz mintzatzera bultzatu ditu? Nola sentitu dira aditzeko orduan? Zer alde dago ikuspuntuak aurrez aurre komunikatzearen eta gizarte-sareetan komunikatzearen artean?

INFORMAZIO GEHIAGO

Interes berezia sortu duen gairik badago, bigarren bilera egitera gonbida ditzakezu parte-hartzaileak, honako gai hauetako batzuez hitz egiteko:

ADIERAZPENAK/GAIK (orrietan idatziko dira):

- zure lehen hitzordua
- zure lehen musua
- norbaitek erakarri zintuen lehen aldia
- itsusi sentitu zinen aldi bat
- polit sentitu zinen aldi bat
- zure idolo bat edo izugarri errespetatzen duzun norbait ezagutu zenuen une bat
- zerbait egitera behartu zintuzten aldi bat
- bidegabekeria bat bizi izan zenuen aldi bat
- halabeharrez ikusi zenuen bidegabekeria bat
- ulertzen ez zintuztela sentitu zenuen aldi bat
- zure inguruan aldatu nahiko zenukeen zerbait
- adiskidetasun eder bateko une berezi bat
- maitatua sentitu zinen une bat
- lagun batekin igaro zenuen unerik zoriontsuena
- “nahikoa da!” esan zenuen une bat

- oso opari itsusia jaso zenuen aldi bat
- azken agur gogor bat
- inozo sentitu zinen aldi bat
- nota txarra atera zenuen aldi bat
- oso nota ona atera zenuen aldi bat
- norbaitek antolatu zizun ustekabeko opari zoragarri bat
- denak aho zabalik utzi zenituen aldi bat
- norbait ezagutu eta zuk pentsatu bezalakoa ez zela konturatu zinen aldi bat
- lurrak irents zintzan nahi izan zenuen aldi bat
- gay harrotasunaren desfile bat ikusi zenuen lehen aldia
- zer sentitzen duzu kalean bi gizon edo bi emakume elkarri eskutik helduta ikusten dituzunean?

8. JARDUERA

HITZ EGIN DEZAKET?

GAKO-HITZAK: autoestimua, ikusgarritasuna/ikusezintasuna, ezberdintasunak.

HELBURUAK: norbera ezberdina sentitzean sortzen diren zailtasunak itxuratzea, gizartean ezarritako patrioiak daudela ohartarazten laguntzeko.

Hizkuntzaren erabilera garrantzitsua dela eta zuzen erabiltzen ez denean trabak jartzen direla erakustea.

TESTUINGURUA: Jolasaren helburua da bazterkeriaren ondorioz sortutako antsietatea itxuratzea. Dinamizatzaileak esku har dezake, dinamika kaltegarriak mugatzeko eta eteteko.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Jolasa hasi baino lehen, kartel bat esekitzen da. Kartel horretan, adierazpen homofoboan zerrenda bat agertzen da, guztiek erraz irakurtzeko moduan.
2. Ondoren, dinamizatzaileak azaltzen du parte-hartzaileek kartelean adierazpenak egiazkoak balira bezala hitz egin behar dutela.
3. Orobat, azalduko du gutxienez parte-hartzaileetako batek lesbiana/gay/bisexual/transexual rola egin behar duela, baina gainontzekoei horren berri eman gabe, dinamizatzaileak "orain hitz egin dezakezu" esaten dion arte.
4. Hori egin aurretik, nahi badu, bere ikuspuntua adieraz dezake, baina besteei rol bat betetzen ari dela pentsarazi gabe.
5. Taldeko gainontzekoei eskatuko zaie erabil ditzatela hizkuntza zeharo baztertzaila eta LGBT taldearen kontrako esamoldeak.
6. Dinamizatzaileak esaldi neutro batez hasiko du solasaldia. Honela, adibidez: "atzo zineman bi gizon ikusi nituen elkarri musuka"; horrek aurreiritziren bat adieraztea eragin dezake.
7. Gero, talde homofoboak baliatu duen hizkuntza nolakoa izan den apuntatuko du dinamizatzaileak, besterik gabe.
8. Minutu batzuen ondoren, edo talde homofoboak LGBTei zailtasun handiak sortu eta gero, dinamizatzaileak LGBT pertsonari emango dio hitz egiteko aukera, piztu den prozesu homofoboa indargabetzeko.

BATERATZE-LANA

Dinamizatazaileak funtsean hiru egoera ezberdin aurkituko ditu:

1. Inork ez du aukeratzeko LGBT pertsonaren rola. Hala gertatzen bada, parte-hartzaileei eskatuko zaie esan dezatela zergatik inork ez duen rol hori aukeratu, nahiz eta jokoaren baldintzetako bat izan.
2. Hasieran norbaitek LGBT pertsonaren rola aukeratzeko du, baina gero asmoa aldatzen du. Kasu horretan, estatusunean egon den pertsona horri eskatu beharko litzaioke azal dezala zergatik eta nola izan dituen sentimendu horiek.
3. LGBT pertsonaren rola bete dutenei eskatzen zaie beren sentimenduez mintza daitezela, eta taldeari, berriz, iruzkinak egin ditzala LGBT pertsonak esandakoaren gainean taldeak izan duen portaeraren emaitzaz.

Bukatzeko, dinamizatazaileak jokoan entzundako esamolde homofoboak aipatuko ditu eta horien oldarkortasuna azalduko du.

INFORMAZIO GEHIAGO, LOTURAK

Homofobiaren kontrako zine lehiaketan parte hartu zuten film laburrak web gunean ikus daitezke.

ADIERAZPENAK (arbelean idazteko)

- Gay edo lesbianek ez diote elkarri musurik eman behar jendaurrean, haurrak begira egon badaitezke;
- Gimnasioko aldagelan gay edo lesbianaren bat dagoela jakingo banu, ez nuke han harekin batera erantzi nahiko;
- Gay harrotasunaren desfileak, jakina denez, gay, transgenero eta lesbianen perbertsioak munduari erakusteko aukera bat baino ez dira;
- Transexualek kalean soilik egin dezakete lan;
- Nik ez daukat arazorik beraiekin, baina ez nuke eduki nahi seme edo alaba gay/lesbiana/transexuala;
- Ez dut ulertzen zergatik ezin duten bizi beren joera gauza intimo, pertsonal eta pribatu bat bezala;
- Lesbianak gizonak izan nahi duten emakumeak dira, eta gizon gayak, berriz, emakumeak izan nahi duten gizonak.

9. JARDUERA

BAZTERTU HOMOFOBIA! (<http://rainbow.ecfa.info>)

GAKO-HITZAK: estereotipoak, homofobia, eskubideak, berdintasuna, homofobiaren kontrako borroka.

HELBURUAK: Lineako bideo-joko hau oso sinplea da eta hiru helburu lortu nahi ditu: (1) hainbat eszenatoki sinesgarri deskribatzea, geroago (2) homofobiaren bereizgarriak azpimarratzeko eta (3) erasotzaile homofoboarengana arreta erakartzeko, izan ere, hori aldi berean gorrotoaren kulturaren biktima da eta badu aukera kontzientzia hartzeko eta laguntza jasotzeko. Joko hau Rainbowren jarduerak ezagutzen dituztenek nahiz horien berririk ez dutenek erabiltzeko pentsatuta eta diseinatuta dago.

TESTUINGURUA: Eska iezaiezu neska-mutilei egun batzuetan jokoan ibil daitezela eta idatz dezatela zalantza sortzen dien edozein kontzeptu edo egoera.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Galdetu neska-mutilei nola pasatu zuten jokatzeko eta ea ba al zegoen ongi ulertzen ez zuten alderdirik.
2. Galde iezaiezu zer abatar edo irudi grafiko erabili zuten jokatzeko. Galdetu ea abatar hori beraien sexukoa zen ala kontrako sexukoa.
3. Galdetu zeintzuk diren irudikatutako maila bakoitzaren bukaeran agertzen diren bi oztopoak.
4. Zer irudikatzen zuten paperezko bilkariek eta hegazkinek eta zertarako balio zuten?
5. Galdetu zeure buruari ikasleen ikuspuntutik zer gertatzen den jokoaren amaieran.

BATERATZE-LANA:

Solasaldian aintzat hartu eta sar itzazu honako alderdiok:

- a) Jokalarietako inor (ez bi jokalaria, ez preso, ez laguna ere) ezin izan liteke homosexuala. Homofobiak zerikusia dauka ez bakarrik homosexualekin, baizik eta baita beren ekintzen ondorioz biktima diren heterosexualekin ere.
Parte-hartzaileen ustez, homofobiaren kontra borrokatzeko zer da lagungarriagoa, arreta biktimengan jartzea edo ekintza homofoboak burutzen dituztenengan?
- b) Bi jokalariek lagun bat askatu behar dute alegiazko “munstro homofobo” baten atzaparretatik. Munstro horren ezaugarria itzal bat da.
Nola irudikatu ahal izango zuten homofobia?
- c) Paper bilkariek eskubidea irudikatzen dute, indarkeriaren kontra; era berean, indarkeria bilkarien lapurrek irudikatzen dute (eskubidea lapurtzen dute) eta, horrela, eskubide horrekiko errespetu falta erakusten dute. Jantzera aipatzean ez da estereotiporik sortu nahi, baina bilkariko artikulu gehienak Europar Batasuneko zuzenbideko iturrietatik datozela kontuan hartuta, Europar Batasuna nabarmentzen da, diktaduren garai baten eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren iritsi den proiektu demokratiko gisa.
Egiaz ba al dago indarkeria Europara itzultzeko arriskurik? Nola ekidin liteke?
- d) Fitxak eta ILGA Europe-en web gunearen aipamena (*International Lesbian and Gay Association*–Lesbiana eta Gayen Nazioarteko Elkarte) bi tresna dira, Europar eskubideek bateratasunik ez dutela azpimarratzen dutenak. Mailaren bukaeran, barneratutako homofobiak sortzen duen sufrimendua irudikatzen du negar egiten ari den pertsonak. Zorionaren fitxek pertsonak negarrari uztea ahalbidetzen dute, homosexualek ezagutzen ez duten edo baztertzen duten aukera bat irudikatzen dutelako.
Ezagutzen duzue norbait armairutik ateratzea bere bizitzako une garrantzitsu bat bezala bizi izan zuena? Nortasuna aldatu al zuen? Zoriontsuago da ala zorigaitzokoago? Zergatik?
- e) Jokoaren amaieran, adin handiko pertsona batek “munstro homofoboa” irudikatzen du. Nahiz eta, nazioarteko inkesta batzuek erakusten dutenez, helduek edo adintsuek balio tradizionalak dituzten, kasu honetan ez dago belaunaldiko bereizkeria proposatzeko asmorik. Munstro homofoboa ahula eta makala da, eta bere indarra ez da islatutako indar bat (argia).
Zeintzuk dira homofobiaren islatzaileak eta argia?

INFORMAZIO GEHIAGO:

Eska iezaiezu neska-mutilei egiazta dezatela badaudela gizarte-gaiak lantzen dituzten bideo-jokoak edo badaudela LGBT pertsonen aurkako bereizkeriari kontra egiteko beste joko batzuk. Gero, aztertu emaitzak. Zenbat joko aurkitu dituzte? Zer dela eta aurkitu dituzte joko horiek? Inoiz pentsatu al dute horrelako joko bat asmatzea?

10. JARDUERA**...GERTATZEN DEN BAKOITZEAN**

GAKO-HITZAK: homofobia, *bullying*-a.

HELBURUAK: Jarduera hau “Baztertu homofobia!” bideo-jokoarekin lotuta dago. Horren bidez, parte-hartzaileek ikusitako indarkeria homofoboaren (hitzezkoa nahiz fisikoa) alderdiak aztertu nahi dira.

ADINA ETA PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA: 18 urte – gutxienez 8 parte-hartzaile.

GAUZATZEKO MODUA:

1. Ikus ezazu neska-mutilekin batera “Baztertu homofobia!” bideo-jokoaren aurkezpena” (<http://rainbow.ecfa.info>).
2. Galdetu parte-hartzaileei ea jokoaren egoera sinesgarria den ala ez, eta zergatik.
3. Eskatu parte-hartzaileei hitz egin dezatela bizi izan dituzten antzeko beste gertakari batzuen gainean, eta galde iezaiezu ea zer egin zuten, nola sentitu ziren eta zer ez zuten egin, baina egin nahi izango zuten.
4. Antzeztu parte-hartzaileek kontatutako historietakoren bat.
5. Eska iezaiezu jokoan parte hartu ez dutenei deskriba ditzatela ikusi dituzten jokabideak eta aldaketa bat proposa dezatela antzeztu duten aktoreetako baten rolean, eraso homofoboaren ordezkoko konponbide gisa.
6. Beste bateratze-lan batean, hitz egin ezazu erreakzio horiek eragin zituzten edo prebenitu zituzten arrazoiez, eta banan-banan aipatu homofobotzat jotako ekintzak.

BATERATZE-LANA:

Azter itzazu portaerak parte-hartzaileekin batera, eta balora ezazu zerk eragotzi dituen hainbat erreakzio eta, aitzitik, zer baliabidek edo baliok eman dien adore haiek gauzatzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Shark Bait film laburra ikustea iradokitzen dugu. Film hori Rainbow hezkuntza-tresnen sortaren DVDan dago.

KREDITUAK

CIG - Centro di Iniziativa Gay (Arcigay Milano) (www.arcigaymilano.org), Italia
CIG (Centro di Iniziativa Gay) irabazi asmorik gabeko boluntarioen elkarte bat da eta Milanen

dauka egoitza. Gay komunitate gisa antolatzen da eta hainbat azpibanaketa, batzorde eta lantalde ditu. Horiek denak babesa eta laguntza ematera bideratuta daude eta homosexual eta transexualenganako elkartasun printzipioetan oinarritzen dira. CIG 1984. urtean sortu zen, mugimendu politikoaren eta gay autokontzientzia mugimenduen talde atomizatu txikiak baino harago joateko premiari erantzuteko eta erakundeekin konfrontazio orokorra hasteko. Hamarkada hauetan, dokumentazio-gune zabala eskuratu du, baita etengabe hobetzen ari den eta komunitate homosexualaren espektatibei albait ondoen erantzuten saiatzen den egitura ere. Egituraren elementuak hauek dira: Accoglienza (Harrera-taldea), Biblioteca (liburutegia), Cultura (kultura), Scuola (eskola), Telefono Amico (gay komunitatearentzako laguntza telefonoa), Giovani (Gazte-sarea), Salute (osasuna eta gaixotasunak). CIGen jardura guztiak, oro har, boluntarioek burutzen dituzte. 1985. urtetik CIG *Arcigay*ren kide izan da eta 2006. urtetik tokiko batzorde gisa jardun du Milanen.

Kideak:

Arcigay (www.arcigay.it), Italia

1985. urtean eratu zen eta homosexualen eskubideak aintzat hartu zituen Italiako lehenengo erakunde nazionala da. 2007. urtean 160.000 kide baino gehiago zituen. Erakundeak tokiko 114 zentzoren koordinatzaile-lanak egiten ditu (horietako 50 politikoak eta kulturalak, eta beste 64 olgetarakoak) Italiako 48 probintzian, iparraldean dagoen Bolzanotik hegoaldeko Cataniaraino. Zentro horien guztien zerrenda kontsultatzeko, ikusi www.arcigay.it/local eta aisiarako lekuen (tabernak, diskotekak, saunak eta beste zentro batzuk) direktorio bat eskuratzeko, aldiz, ikusi www.arcigay.it/ricreativi. Arcigayk egoitza nagusia Bolognan dauka, Don Minzoni, 18 kalean. Irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, boluntarioz osatutakoa, eta homofobia, heterosexismo, aurreiritzi eta gayen aurkako bereizkeriari aurre egitea du xede. Erakundea pertsona guztientzako berdintasun-estatusa lortzeko borrokan konprometituta dago, joera sexuala alde batera utzita. Homosexual guztiei bizitza betea, askea eta zorientzua ahalbidetzeko lan egiten du.

Arartekoa - Euskal Autonomia Erkidegoko Herriaren Defendatzailea (www.ararteko.net), Espainia

Giza eskubideetarako Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria da; organo independentea eta autonomoa da, edozein botere politikori dagokionez. Arartekoaren egiteko nagusia giza eskubideak babestea da, agintekeriaren eta, oro har, euskal herri-administrazioen jardura okerren aurrean. Horrez gain, Arartekoak gomendioak egiten ditu, politika publikoetan aintzat har dadin giza eskubideak hobeto babestu eta zaintzeko aukera, batez ere erasotzen errazak diren edo arrisku, bazterkeria, bereizkeria edo gizarte-eskasia egoeran dauden pertsonen eskubideak. 2007. urtetik Arartekoak LGBTen eskubideak sustatu eta defendatu ditu, eskubide horiek berariaz joratzeko lan-arlo baten bitartez. Lan-arlo horren jardura nagusien artean honako hauek daude: herri-administrazioak LGBTen eskubideak urratzeagatik herritarrek egiten dituzten kezak bideratzea, aniztasun sexualaren erabateko gizarte-onarpena sustatzea tailerren eta jardunaldien bidez, LGBT elkarteekin harremanak izatea, LGBT mugimenduaren eskaera nagusien gainean erakunde publikoak sentsibilizatzea, LGBT kontuei lotutako gaiei buruzko ikerketak egitea eta argitalpenak editatzea.

Kide elkartua:**ArciLesbica ZAMI (www.arcilesbica.it), Italia**

1996. urtean eratu zen Arcigayren jardueren antzekoak gauzatzeko eta 2011n ILGA-ILGA Europe izenekoari batu zitzaion. Bere eginkizun nagusia da lesbianen kontrako bereizkeria eragozte eta haiei hitza ematea.

ArciLesbica erakundeak Bolognan dauka egoitza eta Italia osoan 18 talde ditu. 2008. urtean, erakundeak ofizialki bere gain hartu zuen lesbianen, transexualen eta 'queer' izenekoek aldeko lana. ArciLesbica Zami 1997an sortu zen, lesbianen aurkako indarkeria, aurreiritzi eta bereizkeria ororen kontra borrokatzeko. Audre Lorde olerkari, idazle, lesbiana eta aktibista afroamerikarraren liburu famatuetakoa baten izenburua da *Zami*.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Livia Brambillari, Eva Schwarzwaldi, Stefano Oldaniri, Giampaolo Marziri, Rafael Manigliari, Edda Orlandiri, Gabriella Cafrari eta Marco Bellaviari horiek guztiek homofobiaren kontrako film laburren lehiaketan parte hartu dute eta tresnen sorta ebaluatzeko probetan parte hartu duten pertsona guztiei.